



**XXXIV.
SAGARDO
EGUNA '15**

gehigarri berezia

A317



sagardo

ATZERA KONTUA, MARTXAN

Hauteskunde giro betean egonda, lerrootan maiatzaren 17an sagardoa herriko alkate izango dugula iragartzea ez da oso txukuna izango agian. Baina Sagardo Egunak urtero biltzen duen jendetza ikusita, edota herritarrek eguna zer nolako irrikaz bizi duten jakinik, ezin esan besterik; badatorrela usurbildarren festa kuttunena. Egunotan, jai egun handirako udalerrria nola apaintzen duten ikusiko dugu. Girotzen hasiko gara. Eta igandean festara. Azken hilabete hauetan prestaketa lanetan aritu diren Sagardo Egunaren Lagunak taldekoen eskutik, urtero moduan, herritar edo herri eragile, talde, elkarre batek izango du, maiatzaren 17ko jaialdia abiatzeko ohorea. Nor edo nortzuk diren ezagutu nahi badituzue, gerturatu igande goizeko 11:30ean frontoira. Eta une horretatik aurrera, denok dantza batean joango zaigun egunaz gozatzeraz:



Ea iaeko eguraldi berbera egiten duen aurtengoan.

Maiatzak 17, igandea: XXXIV. Sagardo Eguna

- 11:30 Irekiera ekitaldia frontoian.
- Goizean zehar, baserriko, labeldun eta Gipuzkoako Sagardogileen

Elkarteko sagardoa dastatzeko aukera. Honez gain, pintxo aukera zabala.

- Arratsaldean zehar, "Elektro Patxaranga" kaleetan zehar.

ETXEKOAK ETA HERRIALDEKOAK

Herrikoak, eskualdekoak, Gipuzkoakoak, baserrietako sagardoa, labelduna, Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteko kideek ekoizitakoa... Postu eskaintza zabala maiatzaren 17ko Sagardo Egunean ere. Eskuratu zuen edalontzia frontoi sarreran eta egin osteratxoa, pilotalekuan, Dema eta Askatasuna plazetan kokatuko dituzten postuetatik barrena. Herritarrak edari preziatua zerbitzatzeko prest aurkituko dituzue. Zerbitzariez ari garela, antolatzaileek eskertuko dute sagardo botatzaileen laguntza. Ohi bezala, jaialdia hasi

baino lehen, goizeko 8:00ak aldera bildu ohi dira frontoian, dena prestatzen hasteko.

BERTAKOAK

Baserrietako sagardoa: Agerreazpi, Aizperro, Kupela-Anburu, Gorosti, Leitzarran, Petritza, Kupel-txiki.

Herriko sagardotegiak: Aginaga, Aialde-Berri, Arratzain, Astiazaran, Saizar (labelduna eta normala), Urdaira.

HERRIALDEKOAK

Aduna: Aburuza (labelduna).

Aia: Izeta (labelduna eta normala), Satxota (labelduna eta normala).

Astigarraga: Artola, Astarbe (labelduna eta normala), Bereziartua (labelduna eta normala), Lizeaga (labelduna eta normala), Mendizabal, Petritegi (labelduna), Sarasola.

Azpeitia: Añota (labelduna).

Hernani: Alberro, Goiko Lastola, Iparragirre (labelduna), Otsua-enea, Rufino.

Igeldo: Calonge (labelduna).

Lasarte: Otegi.

Urnieta: Elutxeta, Oianume.

Zerain: Oiharte.

III. SAGASTIAK LORETAN

Sagastiak Loretan jardunaldien artean dago Sagardo Eguna. Baina aurretik, eta ondoren, hainbat ekitaldi izango dira sagarraren, sagastiaren eta sagardoaren inguruan.

Maiatzak 14, osteguna

11:30 Usurbilgo sagardoaren ibilbide turistikoaren aurkezpen-prentsaurrekoa Potxoenean.

Maiatzak 15, ostirala

San Ixidro Eguna

10:30 Meza nagusia Salbatore Elizan. Ondoren, hamaiketakoa eta herri kirolak frontoian.

14:00 Bertso bazkaria Artzabalen. Txartelak salgai maiatzaren 12ra arte, 25 eurotan, Artzabalen eta Alkartasuna Kooperatiban.

18:30 Kalejira erraldoi konpartsarekin.

Maiatzak 23, larunbata

09:00 Sagastien zaintza ikastaroa Potxoenean: gaitzen eta izurriteen jarraipena. Aitor Etxeandiaren eskutik.

19:00 Bertsokata egitasmoaren aurkezpena. Bertso saio baten barruan sagar muztio eta sagardoa dastatzen ikastea, Guillermo Castaños enologoaren laguntzarekin. Maialen Lujanbio eta Unai Agirre bertsolariekin.

Maiatzak 30, larunbata

09:00 Sagastien zaintza ikastaroa Potxoenean: Ongarriketa. Aitor Etxeandiaren eskutik.

Ekainak 13, larunbata

10:15 Sagastien zaintza ikastaroa Potxoenean: Udako kimaketa. Aitor Etxeandiaren eskutik.

III. Sagastiak Loretan jardunaldien



Maialen Lujanbiok maiatzaren 23ko bertso saioan hartuko du parte.

sustatzaileak: Usurbilgo Sagardo Egunaren Lagunak, Alkartasuna Usurbilgo Baserritarren Kooperatiba, NOAUA! Kultur Elkarte, Usurbilgo

Sagastia E.M., Usurbilgo Gazte-txea, Sagardoaren Unibertsitatea, Gipuzkoako Sagardogileen Elkarte, Bizi Sagardoa, Usurbilgo Udala.

SAGARDOAREN IBILBIDE TURISTIKOAREN AURKEZPEN EKITALDIA

Sagastiak Loretan jardunaldien baitan, "Sagardoaren Ibilbide Turistikoa" aurkeztuko da. Ez da beste ekitaldi bat gehiago izango. Epe erdi eta luzera, onura asko ekar ditzakeen egitasmoa baita. Ostegun honetan egingo da aurkezpena, maiatzak 14, goizeko 11:30ean Potxoenean.

Duela bi asteko NOAUAIn, honetaz hitz egiteko aukera izan genuen Jakoba Errekondorekin.

Gida honen bitartez, "Usurbil gune turistiko bezala planteatzen da. Baina ez soilik sagardotegi edota txotx ikuspegitik. Sagastiak, tola-reak, baserriak, katak... Areago jo nahi da Ibilbide Turistikoarekin. Hori ez dago inon". Errekondoren esanetan, "ikaragarritzko eskea dago, kanpotik batez ere. Alemaniatic, Amerikako Estatu Batuetatik jendea etorriko da ibilbide turistikoa egitera, eta orduan jabetuko gara zerbait badugula".

SARI MORDOA, GATTUNK TONBOLAN



#Kilometroak15 ekimenaren aldeko elkartasun txoko bat izango du igandeko XXXIV. Sagardo Egunak Mikel Laboa plazan, Aritzetako izkiñan; Gattunk Tonbola. Opariz ederki hornitua, musikaz girotua eta ekimena umore ezin ederragoz blaituko duten Ana Urdangarin eta Larraitz Izagirre usurbildarrek animatuko dute, urriaren 4ko jaialdiaren aldeko laguntza bildu nahi duen gunea.

Izagirre eta Urdangarin, Gattunk Tonbola antolatzeko lanetan dabilta urte hasieratik. "Berriak gara kontuotan, dena ondo ateratzea espero dugu. Ilusio handiz gaude. Sagardo Eguneko tonbola guretzat proba modukoa izango da, Santixabeletan hobetzeko", Larraitzek NOAUA!ri aipatu dionez.

Gogorazi digutenez, lehenengo tonbola izango da igandekoa, baina ez azkena, hurrengo hilabeteotan edizio gehiago antolatuko baitituzte.

Maiatzaren 17kora itzulita, tonbolara gerturatzeko bazarete, euro bateko boletoak erosi eta zorte on apur batekin, opari mordo irabazteko aukera izango duzue. "Opari sorta ederra izango dugu, opari potoloak ere bai tartean, musika eta giro polita", antolatzailen esanetan.

Denetarik izango dute; bizikleta, errealeko baloi eta kamiseta sinatua, telebista, afariak, Pirritx, Porrotx eta Marimototxen opariak, koadroak, nekazal etxean asteburua... Otsailean hasi zuten Gattunk Tonbolarako material bilketa, ezin arrakastatsua izan da. Anak pozarren adierazi digunez, "herria erabat inplikatu da. Edozein unetan gerturatzeko zaizkigu herri-tarrak, tonbolarako eskulanak egin dituztela esanez". Maiatzaren 17an ohartuko zareten moduan, opari eskaintza anitza ikusi ahalko duzue Gattunk Tonbolan. Herriko komertzioak, Eguneko Zentroa, Gaztelekua... inpli-

katu dira elkartasun ekimen honetan. "Herriak oso ondo erantzun du. Esker-rak denei bihotz bihotzez", antolatzailen izenean.

HELDUENTZAKO TXANDA BEREZIA

Gattunk Tonbola egun osoan egongo da zabalik, 11:30etatik aurrera. Eta adi; azken orduan, 18:00etatik 19:00etara, helduentzako tonbola berezia antolatu dute eta. Opari bereziekin. Herriar oro gerturatzera animatzen dute. "Guraso, haur, heldu, herriko, kanpotar... Denak ongi etorriak izango dira. la eguraldiak laguntzen digun eta jendea animatzen den", Larraitzek NOAUA!ri adierazi dionez. Zuen zain izango dira.

LAGUNTZA BEHARREAN DIRA

Gattunk Tonbola prestatu eta bil-tzeko, eta opariak garraiatzeko boluntarioak beharko dituzte antolatzaileek igandean. Laguntzeko prest direnek deitu dezatela 633 155 879 (Ana) telefono zenbakira. Zenbaki bera baliatu baita, tonbolarako opariak utzi nahi dituzuenok. Iganderako material bilketa kanpaina amaitutzat eman dute antolatzaileek.

“Sari asko falta dira oraindik”

Baina gogoan izan, tonbola berfiz antolatuko dute Santixabeletan eta urriaren 4an. Hitzorduotarako opari gehiago beharko dituzte. “Oraindik sari asko falta dira, gehiago beharko ditugu. Gauzak behin eta berriz eskatzen jarraituko dugu, beharrezkoa da”, aipatu digute Anak eta Larraitzek. Edozein opari ongi etorria izango dela aipatu digute.



Larraitz Izagirre eta Ana Urdangarin ari dira tonbola sustatzen, baina laguntza premian

Tonbola Sagardo Egunean

Ordutegia: 11:30-19:30.
18:00-19:00 artean, helduentzako tonbola berezia.
Mikel Laboa plaza, Aritzetako izkiña.
Parte hartzeko: euro batean salgai izango diren boletoak erosi.

Hurrengo tonbolak...

Egunak: Santixabel jaietan eta urriaren 4ko #Kilometroak egunean.
Materiala biltzeko epeak zabalik: bilketarako deitu 633 155 879 (Ana) telefono zenbakira.

GATTUNK TONBOLA ONDOAN... POSTUA ETA DENDA

Udaberriko kanpaina koloretsu betean den Gattunk Denda zabalik izango da XXXIV. Sagardo Egunean. Goizeko 10:30etik arratsaldeko 14:00ak arte, #Kilometroak15 ekimeneko materiala ikusi eta erosteko aukera ezin ederragoa izango duzue beraz. Ez dendan bakarrik, baita Gattunk Tonbola ondoan, hau da, Argilan saltoki parean jarriko duten postuan ere. Postura gerturatu eta gustuko arroparen bat ikusiz gero, ez kezkatu. Zabalik izango den dendako aldageletan probatu ahalko duzue eta.



Goizeko 10:30etik 14:00ak arte, zabalik izango da Gattunk denda eta tonbola ondoko stand-a.

BARRE-ALGARAK ZIURTATUAK, "HAMEN BEA" SAGARDOTEGI GIROKO ANTZEZLANAREKIN

#Kilometroak15 ekimena aurkezteko iazko azaroan Oiardo Kiroldegian ospatu zen ikuskizunaz oroituko zarete ziur. Barre ugari eginarazi ziguten, tarte batean, Txaramuntoko esketx hartan, bertsotan eta abesten ere ikusi eta entzun genituen Maitere, Paulino, Pako, Iñaki eta konpainiak. Esketx hark soka-luzea ekarri du. Taldea bueltan dator, orduko pertsonaiak eta istorioaren ildo berreskuratuta, umorezko antzezlan osatuz. Larunbatean estreinatuko dute 19:00etan Sutegin, sagardotegian girotua egongo den "Hamen Bea" komedia ederra. #Kilometroak15-en aldeko ekimen honetara gonbidatzen gaitu antzezle taldeak. Sagardo Egunerako girotzen hasteko hitzordu ezin hobea, bezperako ikuskizun hau.

Nondik atera da izenburua?

Alberto Pikabea: "Hamen Bea" Txaramuntoko esketx hartan erabili nuen esaldi bat zen. Biltzen hasi ginenean, esaldia bera adierazteko moduagatik, taldeko esaldian bihurtu zen.

Kilometroak-en aurkezpen ikuskin zunean eskaini zenuten emanalditik dator antzezlan hau. Jarraipena da honakoa?

Pako Agudo: Ez da bigarren zati bat. Aktoreak ordea berdinak gara. Emanaldi hartan sortu zen festa girotik, eroso sentitzen garenez, ildo horretatik jarraituko dugu.

Emanaldi haren bertsio luzatua izan daiteke?



Sagardo Egunerako girotzen hasteko, hitzordu egokia dirudi "Hamen Bea" antzezlanak.

P. A.: Aurrekoa emanaldi laburra izan zen. Gehiagorako gogoz geratu ginen eta orain emanaldi luzeagoa egingo dugu.

A. P.: Jendeak ez dakit gu ikusteko gogoia izango ote duen, guk bai antzeztekoa.

Iñaki Agirresarobe: Sagardotegi batean giroturiko emanaldia izango da. Sagardo Egunaren bezpera dela eta, Kilometroak-en aurkezpena girotu zuten Txaramuntoko esketx hartako pertsonaiekin.

Zein izan zen aurkezpen ikuskizuneko esketxaren sorburua?

I. A.: Kilometroak15-etik etorri zitzaizkigun, 60 urtetik hona gertaturiko pasarte garrantzitsuenak antzezteko eskatuz. Txaramunto garaiko bizitza ez zuela inork ezagutu eta hori plaza-ratzea nahi zutela. Bertso munduko giroa islatu nahi zenez, gurekin harremanetan jarri ziren. Gidoi bat pasa ziguten eta jendea behar zen. Gu ere inguruko jendeari deika hasi ginen. Eta hala osatu zen taldea. Denak ezagunak gara, herriko xelebreenak.

Testuinguru konkretu batean kokatua dago emanaldia. Dokumentatu beharra izan al duzue?

I. A.: Aurreko emanaldirako dokumentatu beharra zegoen. Gidoia Antton Aranburuk ekarri zigun eginda. Oraingoa, giro horretakoa da baita, baina fikziozko antzezlan.

P.A.: Oraingoa, aurkezpen egun hartan egin genuen bazkaritik dator. Urduritasuna kentzeko hizketan hasi ginen, istorioak kontatzen eta ideiak botatzen. Horrekin guztiarekin Alberto Pikabeak gidoia idatzi eta hortik sortu zen antzezlan hau. Aurreko emanaldiaren antzekoa izan arren, ohol-tza gainean aurkezterakoan oso ezberdina izango da.



Antzezlaneko partehartzaileak: Maitere Alkorta, Kerman Errekondo, Mikel Alkorta, Alberto Pikabea, Pako Agudo, Mikel Elexpe, Paulino Ibargoien eta Iñaki Agirresarobe.

A. P.: Atenporala da. Aurreko emanaldikoak, existitzen ziren pertsonaiak ziren, oinarri historikoa zuen. Oraingoan, garai bateko, duela gutxiko eta asmatutako istorioak tartekatu ditugu.

Ze sentzaziorekin geratu zineten publikoaren partetik aurreko emanaldian?

I. A.: Jendaurrean ondo pasatzen ari ginen eta batzuk aho betehortz ikusita, konektatu genuela ikusi genuen. Gustura.

P. A.: Pentsa, egun hartatik atera da hau dena.

Estreinaldirako zain izango duzuen publikoari zer esan?

P. A.: Etortzeko eta ia Sutegi betetzen dugun. Etortzen denak, antzezlan gustukoa izan edo ez, zerbait ezberdina ikusi duen sentzaziorekin aterako da.

I. A.: Sutegiko auditorioak duen akustika ona da eta egokia, halako

antzerki motak bertatik bertara ikusteko.

SARRERAK, LIZARDIN ETA TXIRRISTRAN

Estreinaldia, larunbat honetan
Ordua: 19:00.

Tokia: Sutegiko auditorioa.

Antzezleak: Maitere Alkorta, Kerman Errekondo, Mikel Alkorta, Alberto Pikabea, Pako Agudo, Mikel Elexpe, Paulino Ibargoien eta Iñaki Agirresarobe.

Zehaztasunak: #Kilometroak15-eko aurkezpen ikuskizuneko Txaramuntoren eskenari jarraipena.

Sarrera: 3 eurotan Lizardin eta Txirristran.

Antolatzailea: #Kilometroak15.

ERRELEBORIK EZ BADA, TALOGILEEN TALDEA DESEGINGO DA

Kide bat baino gehiago bilgunea osatu zutenetik gaur arte jardunean izan direnez, Usurbilgo talde beteranoe-na edo ibilbide luzeenetarikoak jorratu duena desegitera doala esan dezakegu. Aurreko astekarian berri eman genizuen. Urtean zehar Usurbilen ospatu izan diren azoka edo jai egun nagusietan, festa erdian izan ditugu, ekimentera gerturaturikoei, hamaiketako goxo askoa prestatzen. Mimo handiz eskuz eginiko zenbat talo jan ote dira udalerrri honetan, lanerako prestutasun osoa erakutsi izan duen herritar talde bati esker.



20 laguneko koadrila arituko da Sagardo Egunean.

Sagardo eta Erle Eguneak, Artisautza eta Santo Tomas Azoketan sarritan gozatu izan digute eskuz eginiko jaki goxookin. Bi hamarkada inguruko ibilbidea osatu duten honetan, agur esatea erabaki dute. Pena handiz, taldetik aipatu digutenez. Baina ezin jardunari jarraipena eman, ez baitago nahikoa jende aurrera segitzeko. Igande honetako Sagardo Egunean topatuko dituzue, Mikel Laboa plazako ohiko tokian. Aldaketarik ez bada, azken aldiz ariko dira talogile lanetan.

Halere, ez lukete taloak prestatzen egon den ohitura desagertzerik nahi. Erreleboa hartzeko gonbita luzatzen diete herritarrei. "Animatu daitezela. Taldea osatuko balitz, martxan jarri arte ahal dugun neurrian laguntzeko prest egongo ginatke", NOAUA-ri aipatu diotenez. Erabiltzen duten materiala ere uzteko prest daude. Urteetan mantendu den ohiturari jarraipena emateko gonbita egina dago beraz.

"Animatu jendeari segida ematera, lan polita da. Taldea desagertzea pena litzateke", talogileen esanetan. Interesdunek jakin dezaten; 20 bat laguneko taldea da talogileena. "8-10 bat taloak zabaltzen aritzen dira, beste bat parri-

llan, beste bi txistorrarekin, beste pare bat saltzen", taldetik zehaztu digutenez. Jendea bakarrik ez, herriko talde gisa, materialarentzat egun ez duten biltegi batean beharrean ere badirela diote.

AUZOLANA ETA ELKARTASUNA, BAT EGINIK

Gogotik lan egin dute urteotan, beti auzolanean. Mimo handiz lanean eta gustura, hain ibilbide oparoa osatzea ahalbidetu dien familia giro ederrean. Eta laguntzen. Talogileena, elkartasun taldea ere izan baita. Euskal preso senideei laguntzera bideratu izan dute salmentatik jasotako dirua.

Gehienetan lanerako batu izan omen dira, baina noiz edo noiz baita otorduen bueltan ere. Maiatza hasieran bezala. 20 urteotako

ibilbidea, bazkari eder baten bueltan borobildu nahi izan zuten. Zenbait kideek ere merezitako omenaldia jaso zuten, urteotan eginiko lanagatik. "Oso egun polita izan zen. Sorpresa ederra hartu zuten Garbiñek eta Jexux Marik, aurrekua eta oparixko batzuk jasota. Hori dena eta gehiago merezi dute", taldetik aipatu digutenez.

Bazkarian bertan erabaki zuten igandeko Sagardo Egunean talogile lanetan aritzea. Diogun moduan, erreleborik ez bada, azken aldiz.

G Auto Guria s.l



BERRIZ ZUEKIN!

Auto Konponketa
Pre I.T.V.
Marka guztiak

© 943 363 298 Zelai-haundi 11, Osinalde Poligonoa USURBIL

Uraitz, s.l.



Igeltseritza
Orokorra

Telefona
693 05 93 92

Borda Berri 2, 3ºA USURBIL

uraitz@uraitz.com

GIZA-KATEA, HERRIAN FALTA DIRENEZ OROITZEKO

Euskal presoen eskubideen aldeko elkartasun hitzorduak bere tartea izango du urtero moduan, Sagardo Egunean. Igande eguerdiko 13:00etarako Mikel Laboa plazara, talogileen postu ingurura gerturatze-ko gonbita luzatu dute Usurbilen Nahi Ditugu bilgunetik. Bertatik abiatuko da segidan, frontoi atzëa Askatasuna plazako bolatoki gaineko terrazarekin lotuko duen giza-katea. Terrazan, "txotx berezia egingo dugu Xomorro, Olatz eta Patxik ere gurekin izan nahi ditugula, baita Sagardo Egunean ere, aldarrikatzeko".



Eguerdian txotx berezia egingo dute. Eta mariskadaren zozketa arratsaldean egingo da.

SAGARDO EGUNA!

ARDI-BELTZ BERRIA

Sartu, probatu eta itzuli

ONDO PASA SAGARDO EGUNEAN
ETA PROBA ITZAZU GURE...

**OGITARTEKOAK, HANBURGESAK,
PLATER KONBINATUAK, PINTXOAK...
ERAMATEKO EDO BERTAN JATEKOI**

Puntapax 12 Bajo - Usurbil ardibeltzpub@gmail.com @ardi_beltz

BENTA TABERNA

Ogitartekoak, hanburgesak eta plater konbinatuak

Etxera eramateko ere! 663 600 020

Ondo pasa sagardo egunean!

ALDAMU

konponketak



**ONDO PASA
SAGARDO EGUNEAN!**

Nagusia 10 (atzekoaldea) 943 37 27 95

FISIOTERAPIA ZENTROA



Ibaiondo

Fisioterapia
Osteopatia
Errehabilitazioa
Masajeak

*Ondo pasa
Sagardo egunean!*

Ola Kalea, 12 - behea, ezk.
LASARTE - ORIA
Tel / Faxe: 943 370 306
fisiobaiondo@gmail.com

edaritegia BORDATXO

Pintxo bereziak
Bokatak
Plater konbinatuak

*ondo pasa
Sagardo Egunean !!*

Zubiaurrenea, 5. ☎ 943 37 10 42

ZENDOIA taberna

*Ondo pasa
sagardo egunean!!*

kale nagusia 35

OSTIRALEAN, SAN IXIDRO EGUNA

Maiatzak 15, ostirala

- 10:30 Meza nagusia Salbatore Elizan.
- Ondoren, hamaiketakoa eta herri kirolak frontoian.
- 14:00 Bertso bazkaria Artzabalén.
- 18:30 Kalejira herriko erraldoi konpartsarekin.



Meza eta gero, hamaiketakoa eta herri kirolak frontoian.

*Ondo pasa
Sagarde Egunean*

JUANTXO

BURDINDEGIA



Zubiaurrenea 8 • ☎ 943 370 008



Estética

Lourdes Larrañaga

ESTETIKA
ILEAPAINDEGIA



943 36 28 87 USURBIL

ORAIN ERE ILEAPAINDEGIA!
IREKIERA ESKAINTZA (MAIATZA)

GARBITU ETA ORRAZTU 9,5€ (TRATM. PRODUKTUAK KANPO)	METXAK (TXAPELAKIN) 31,00€
MOZTEA 10,00€	METXAK + MOZTU 41,00€
KOLOREA 28,00€	PERMANENTEA 36,00€
KOLORE + MOZTU 38,00€	PERMANENTEA + MOZTU 46,00€



 **Joštailu denda**
xirinbolo

Etxebeste Kalea, 15 943 37 75 96 Usurbil

URDAINTZI

eraikuntzak



649 43 54 75 / 76
943 36 72 64

ERAIKUNTZAK
OBRAK
BERRITZE LANAK

urdaintzi@euskalnet.net

*Ondo pasa
Sagardo egunean!*



LARUNBATEAN, 'HAMEN BEA' ANTZEZLANA

Maiatzak 16, larunbata

■ 19:00etan, Sutegin.

■ Antzezleak: Maitere Alkorta, Kerman Errekondo, Mikel Alkorta, Alberto Pikabea, Pako Agudo, Mikel Elexpe, Paulino Ibargoiien, Iñaki Agirresarobe.

■ Sarrera: 3 eurotan Lizardin eta Txirristran.



#Kilometroak15-eko jaialdian eskainitakoari segida emango diote larunbat honetan.

MAIATZA 17

SAGARDO EGUNA

*Hamaiketakoak, Ogitarteko egin berriak,
Parrillan erretako sahieskia eramateko 6€*

Puntapax 8 - Usurbil
943 36 91 39

Aguirrezabal Estankoa

Ondo pasa
Sagardo egunean

kale Nagusia, 27.

☎ 943 361 110

txirriStra

TABERNA



-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak


Ondo pasa Sagardo egunean!

Kontseju zaharra, Telf: 943 36 04 66

BOX

Alokairua

3 igogailu + erreminta guztiak



Autokarabanak, furgonetak, quads, motorrak eta abar...

Zuk Zeuk konpontzeko tokia eta erremintak

ORDU ERDIA : 10€ Ondorengo minutuak : 0,35€

-2 ORDUTIK AURRERA DESKONTUA !!

Eta nahi izanez gero laguntza !!

Olio, balazten, eta abar en zerbitzua

GURPILAK PREZIO ONEANI!

☎ 666 539 269

Ugaidea Pol. 9 - 4. Nabea - 3. Lokala - 20170 Usurbil

mur

errotuluak

Ibilgailuak - Erakustokiak - Lonak
Argidunak - Inpresio digitala

943 36 60 21 - USURBIL
puntapax kalea 6 A-B

info@murerrotuluak.com - www.murerrotuluak.com

ETA IGANDEAN, SAGARDO EGUNA!

Maiatzak 17, igandea

- 11:30 Irekiera ekitaldia frontoian.
- Goizean zehar, baserriko, labeldun eta Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteko sagardoa dastatzeko aukera. Honez gain, pintxo aukera zabala.
- Arratsaldean zehar, "Elektro Patxaranga" kaleetan zehar.



Arratsaldean, Elektro Patxaranga taldekoak arituko dira kalejiran. Argazkia: Mikeltxo.

noaua euskararen aterpe

Bazkideak egiten dugu posible

Astekaria, noaua.eus, Kulturaldia, Santo Tomas azoka, Inauteri Jaia, Udajolas...

**BAZKIDE EGIN
ZAITEZ!**
eta opari eder
hau eskuratu!



Bazkideza: urtean 36 euro.
Informazio gehiago: 943 36 03 21
elkartea@noaua.eus

www.behetik.com

**Eskailerak igotzea...
ez da oztopo!**

-plataformak -igogailu bereziak -aulki bereziak...



b ehetik

Añorga-txiki 14, tel: 943 368 781 eta 671 073 888

GOLDWELL
ELUMEN

ile
a
p
a
i
n
d
e
g
i



Koloraziotan teknika
berriak eta iraunkorrak

Zubiaurrenea 4, ☎ 943 361 951



USURBILGO
LANBIDE
ESKOLA

Erdi eta goi mailako zikloak
A eta D Ereduak

www.lhusurbil.com



Maiatzak 9 eta 16
ATE IREKIAK

☎ **943 36 46 00**



3. SAGASTIAK LORETAN OSPAKIZUNA

SAGARRONDOEN LORALDIAREN
GORAZARRE EKIMENA USURBILEN

Maiatzak 14, ostirala

11:30 POTXOENEAN
USURBILGO SAGARDOAREN IBILBIDE TURISTIKOAREN
aurkezpen-prentsaurrekoa. Potxonean 11:30etan

Maiatzak 15, ostirala

SAN ISIDRO EGUNA
10:30: Meza Nagusia Salbatore Elizan. Ondoren,
Hamaiketakoa eta Herri Kirok frontoian.
14:00: Bertso-bazkaria Artzabalen.
18:30: Kalejira herriko erraldoi konpartsarekin.
Aitor Etxeandiaren eskutik.

Maiatzak 17, igandea

XXXIV. SAGARDO EGUNA
Usurbilgo Goiko plazaren inguruan, egun osoz.

Maiatzak 23, larunbata

19:00 GAZTETXEAN? SAGARDOTEGIAN?
BERTSOKATA Egitasmoaren aurkezpena.
Bertso saio baten barruan sagar muztio eta sa-
gardoa dastatzen ikastea. Maialen Lujanbio
eta Unai Agirre bertsoarietekin. Usurbilgo Gazte-
txean? sagardotegiren batean?. Arratsaldeko
19:00etan, Guillermo Castaños enologoaren la-
guntzarekin.

Maiatzak 23, larunbata

POTXOENEAN
SAGASTIEN ZAINZA IKASTAROA: Gaitzen eta izurri-
teen jarraipena. Aitor Etxeandiaren eskutik.

Maiatzak 30, larunbata

POTXOENEAN
SAGASTIEN ZAINKETA IKASTAROA: Ongariketa. Aitor
Etxeandiaren eskutik

Ekainak 13, larunbata

POTXOENEAN
SAGASTIEN ZAINKETA IKASTAROA: Udako kimaketa.
Aitor Etxeandiaren eskutik.

XXXIV. Sagardo maiatzak **17**
eguna hamazazpi

Sagardoaren txinpartak on egin **dagigula** denoi!

